

noaua



'ZUMETA 23'

Oskar Alegriaren film laburrak arrasto luzea utziko du / 18

ARGAZKIA: OSKAR ALEGRIA

Udal brigadetan operario gisa lan egiteko programa iragarri dute / 05

Usurbilgo Udalak euskara ikastaroen eskaintza handituko du / 08

Aginaga jai giroan murgilduko da datorren astean / 11

Jende ugari hurbildu da Santueneko festetara / 12

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

(Irailaren 1etatik 15era)

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa. Hiritartasun digitalerako Informatika.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **OINARRIZKO EUSKARA**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08



Dubai, Oman, Abu Dhabi

IRTEERA 2024ko Aste Santua

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



USURBIL
OPTIKA

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa

*Banketxeak
onartzean

Entzumen
azterketa

DOAN

Entzun
telebista

eta mugikorra
zure audifonoetan



**PILARIK
GABEKO**



TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

noaqa

jarraitu gure sare sozialak



www.noaqa.eus

Gasteizko FesTVal jaialdiko EITB Saria, TOKIKOMentzat

NOAUA! kide duen TOKIKOM toki hedabideen sareak jaso du aurtengo EITB Saria.

Irailaren 9ko ekitaldian izan ziren TOKIKOMeko zuzendari Alaitz Artolazabal eta presidente Iban Arantzabal. Oso eskertuak eta pozik jaso zuten saria. Iban Arantzabalek azpimarratu zuenez, "globalizazioaren aroan, zero kilometroko komunikazioak inoiz

baino garrantzia handiagoa du gizarte demokratiko eta kohesionatua bermatzeko, eta zeregin horretan ezinbestekoa dela euskal hedabideen arteko lankidetzak. Tokian tokikoak komunitate biziak dira eta komunikazio gertuko eta fidagarriak behar dituzte".



Iban Arantzabal TOKIKOMeko presidentek nabarmendu zuenez, "globalizazioaren aroan, zero kilometroko komunikazioak inoiz baino garrantzia handiagoa du".

Garbigune mugikorra, Zubietan

Irailaren 21etik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Irailaren 28an osteguna, garbigune mugikorra Kalezarrera eramango dute.

1952. urtean jaiotakoentzako irteera

Urriaren 15ean Añanako gaztagara (Araba) irteera antolatu dute. Goizeko 8:30ean finkatu dute abiatzeko hitzordua Bordatxo parean.

Izen-ematea

Txangoan izena emateko deitu 688 645 318 telefono zenbakira.

Irailaren 29an, Sarek deituriko elkarretaratzea

Udako etenaldiaren ostean, bueltan da Sarek hilero azken ostiraletan deitu ohi duen elkarretaratzea.

Mikel Laboa plazan

Datorren hitzordua, irailaren 29an ostirala, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

Nerea Ibarzabalen 'Bar Gloria' aztertuko dute Sutegin

Urriaren 17an asteartea, literatur solasaldi berri bat egingo dute Sutegi udal liburutegian. Honakoan, Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* (Susa, 2022) nobela hartuko dute hizpide. 19:00etan hasiko da ekitaldia eta egilea bertan izango da. Nobelaren hainbat ale liburutegian dituzue eskuragarri.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Ondo gaude

Irailean opor egun batzuk hartu ditut. Lagunekin bidaiatzeko tarte bat eskaini diot nire buruari. Eta bigarren astean, etxetik, egin beharreko eta atzeratutako gauzei aurrea hartzen saiatu naiz. Medikura joan, lan ordainduetatik kanpoko lanei jarraipena eman... eta zinera joateko tarte bat ere topatu dut aste tartean. Eta baita gustura itzuli ere, Itsaso Aranek idatzi, ekoiztu eta zuzendutako 'Las chicas estamos bien' lehen filma ikusi ostean.

Kontakizuna, uda luze eta eternal batean kokatzen dela dirudi. Pertsonaia nagusien artean, guztiak emakumeak, bizitza, heriotza, sorkuntza-prozesu, maitasun eta harremanen inguruko elkarriketak garatzen dira. Eta niri bereziki, heriotzaren inguruko ikuspuntu eta begiradak atzeman ninduen.

Pertsonaietako batek, beste bati, galdu zuen pertsonarekin hitz egitea gomendatzen zion. Oraindik ere, berarekin harremana mantentzeko modua zela. Eta nahiz eta gaur egun bilakatu zeneko pertsona egiaz ezagutzetik izan ez zuen, elkarriketa hori elikatzeko saiakera egiteko. Orduan pentsatu nuen, noizbait nik ere egin izan nuela. Aitona-amonekin zehazki. Baina



"San Praixkuen antolaketa lanen artean, Herri Kirolak prestatu behar izaten ditugu".

dagoeneko nahiko utzita dudala ekintza hau. Kasualitatez edo kausalitatez ordea, Aitonarekin lotu nauen pasarte bat izan berri dut. Eta ezin aukera hobea baliatu ariketa sano honi berrekiteko.

Irailarekin batera, Aginagako data berezietakoak gerturatzen hasi ohi dira. Eta San Praixkuen antolaketa lanen artean, Herri Kirolak prestatu behar izaten ditugu. Ergometroa, ingudea, txingak, lokotxak, sagar-bilketa, zakuak, arto aletzea eta trontza. Maiz ibili gara

"IKASKETARIK KASIK EZ ETA HALA ERE, INGENIARI BATEN PAREKO ERRESOLUZIO GAITASUNA ZUEN AITONAK"

herri kirol ereduaren inguruan hitz egiten. Berritasunen bat eragiteko gogoia adierazi dute baten batzuk. Bestelako probak baliatzeaz, beste herriren bateko talderen bati erronka proposatzeaz... baina bueltan-bueltan, ostera ere, lehengora itzultzen gara. Ohiko tradizioari jarraipena emanaz, besterik ezean. Eta aurten ere, betiko lanei aurre egingo diegunez, trontza zorrozteko beharrean topatu gara.

Hauxe izan da, Aitonarekin hitz egitera bultzatu nauena. Izan ere, garai batean, berak zorrozten zituen sukaldeko labanak, konpontzen eta txukuntzen baserriko lanabesak. Berak, ikasketarik kasik ez eta, ingeniari baten pareko erresoluzio gaitasuna zuenak. Esku zartatu eta adimen abilarekin, edonolako aparatuak sortzen zituenak.

Eta orain, han hemen ibili behar bilaketan, aipatutako trontzak zorrozteko gai izango den pertsona baten bila. Azkenean, Seguran, beraren pareko 81 urteko gizon heldu batengana jo dugun arte. Eta esan nahi nizuke, ondo gaudela aitona. Baina nahiago izango nukeela, hemen etxean, zurekin trontzak zorrozten jarraitzeko ohorea izango banu.

Lasarte-Oriako 5. Mendi Festa, Zubieta eta Andatzatik barrena

Nahieran osatzeko lehiakorra ez den 5. Mendi Festa antolatatu du Lasarte-Oria Trailek iganderako, irailak 24.

Bi martxa izango dira

Batetik, luzea (26,5 kilometrokoa eta 1.350 metroko desnibel positibokoa, 7:00etan abiatuko dena). "Belkoain, Andatza tontorretatik eramango ditu parte-hartzaileak. Erronka handia mendi martxak maite dituztenentzat". Bestetik, martxa motza (15 kilometrokoa eta 700 metroko desnibel positiboa, 9:00etan abiatuko dena). "Andatzako trikuharria aurkitzera animatzen zaituztegu, inguru horretako estazio megalitikoak osatzen duten historiaurreko 10 monumentuetako bat. Zailtasun ertaineko mendi-martxa".

Izen-ematea eta informazio gehiago:

lasarteoriatrail.com atarian

Irailean ere bisita gidatuak egiteko aukera izango da

650 Usurbil Bizi egitasmoaren baitan antolatzen diren 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatuek segida izango dute hilabete honetan ere; larunbat eta igandean. Sutegitik abiatuko dira ibilaldiak. Hori bai, aurrez eman behar da izena, 650usurbilbizi.eus atarian.



Langabezia tasak gora egin du bigarren hilabetez

Usurbilgoa ez da joera isolatua. Fenomeno bera eman da Buruntzaldean eta Gipuzkoan.



Langabetu gehienak 45 urtetik gorakoak dira.

Bigarren hilabetez jarraian gehitu egin da Usurbilek duen langabetu kopurua. Hala jakinarazi du Estatuko Enplegu Zerbitzuak. Abuztuko langabezia datuak kaleratu berri ditu eta udalerrri honetan 213 langabetu daudela zenbatu du, uztailean baino zazpi gehiago eta ekainean baino hamabost gehiago. Ekainean, hain zuzen, 198 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak, 206 uztailean eta 213 iragan abuztuan.

Joera bera nabari da baita eskualdean eta Gipuzkoan ere. Buruntzaldean, 2.770 langabetu zeudela jakinarazi zuen ekainean, 2.802 uztailean eta 2.878 abuztuan. Gipuzkoan, 27.590 ekainean langabetu

zenbatu zituzten, 27.801 uztailean eta 28.721 abuztuan.

Emakumezkoen artean handiago da langabezia tasa

Udalerrri honetako abuztuko datuetara itzulita, beste behin gizonezkoak baino (87) emakumezko langabetu gehiago ditu Usurbilek, guztira 126. Gehienak, erdia baino gehiago, 45 urtetik gorakoak, 213 langabetutik 116 (60 emakumezko eta 56 gizonezko).

Erregistraturiko kontratu kopuruari dagokionean, 254 zenbatu dituzte Usurbilen, haietatik 191 aldi baterako hitzartuak. Emakumezko langabetu gehiago egon arren, gizonezko gehiago kontratatu dituzte beste behin.

Brigadan operario gisa lan egiteko programa

Beterri-Buruntzako enplegu planaren barruan, udal brigadetan operario gisa lan egiteko formazioa jaso eta lanaldi osoko lanpostuak eskainiko dira, bost hilabeterako: Usurbilen kasuan, lau lanpostu izango dira. Lanbidek kudeatuko ditu eskaerak: aurreikuspenen arabera, irailaren 19an irekiko da izena emateko epea.

Fomazioa eta enplegua

Programak, aurtun, bi zati izango ditu: formazioa eta enplegua. Batetik, EAGI Gipuzkoako Erakuntzako Lanbide Eskolak prestakuntza teorikoa eta praktikoa eskainiko du, Usurbilen, urriaren 20an hasi eta abendura arte. Bestetik, prestakuntza gaingintzen dutenek udal brigadetan lan egiteko aukera izango dute, abendutik maiatzera arte.

Hiru baldintza bete behar dira

Programa, batik bat, Usurbilen bizi diren pertsona langabetuei zuzendua dago, eta lautik bi lanpostu emakumeentzat izango dira. Parte hartu ahal izateko hiru baldintza bete behar dira: Lanbiden lan eskatzaile gisa izena emanda egotea, Usurbilen erroldatuta egotea eta 2022an programa honen edo gazte enpleguko programaren onuradun ez izatea.

Plan hau Lanbidek diruz lagundua da, eta horrek kudeatuko ditu izen-emateak: ondo bidean, irailaren 19an irekiko da izena emateko epea, Lanbideren 'Enplegu atalean'.

Informazio gehiago:

Usurbilgo Udaleko Enplegu saila:
943 371951
enplegu@usurbil.eus

Hezkuntza euskaldunagoaren aldeko sinadura bilketa

Hezkuntzak euskara gehiago behar duela aldarrikatzeko sinadura bilketa abiarazi dute. Ekimena Euskalgintzaren Kontseiluak sustaturikoa da, Euskal Herriko Ikastolak, EHI-GE, Hik Hasi eta HEIZE hezkuntza-eragileek eta STEILAS, LAB eta ELA sindikatuekin batera.

Hiru eskaera

Hiru dira sinadura bilketa honen bidez egin nahi dizkieten eskaerak Eusko Legebiltzarreko kideei: euskara

ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa; euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculum; eta, azkenik, hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea. Deialdian 16 urtetik gorako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek parte hartu ahal dute.

euskaragehiago.eus web orrialdean

Urriaren 15era arte sinatu ahal da euskaragehiago.eus atarian sartuta.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Partzi
Partzi jatetxea
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Ainhoa Urizar Etumeta AEK euskaltegiako ikaslearen esanetan, "tokatu izan zaizkidan irakasleak oso jatorrak dira". NOAUA!

"Euskaraz hitz egiten dakit, baina eroso aritzea falta zait"

AINHOA URIZAR ETUMETA AEK EUSKALTEGIKO IKASLEA

Etumeta AEK euskaltegiak ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik duen honetan, euskara barneratzea du erronka nagusia Ainhoa Urizar herrikideak.

Hau ez da izango zure lehenengo ikasturtea. Noiz hasi zinen euskaltegian?

Duela bi urte, C1 titulazioa behar dudalako eskolan lan egin nahi badut, eta bestalde, nire semeak euskaraz ikasten ari direnez, haiek laguntzeko hasi nintzen euskaltegian. Nahiz eta euskaraz ondo hitz egin eta ulertu, hamabi urte pasa nituen Malagan eta nire euskara maila galdu egin nuela sentitzen dut. Horregatik, semeei laguntzeko beharra dut, gustura bizi nahi dut eta ondo hitz egiten ikasi behar dut. Hemen bizi gara eta niretzat oso garrantzitsua da bertako hizkuntza barneratua izatea. Horregatik, nire hel-

burua euskaraz ondo hitz egitea da. Behar dudana eroso sentitzea da, eta, hemen, familia euskaldun batean jaioa izan banintz bezala sentitzea.

Garrantzitsua da segurtasun hori izatea ezta?

"Zuk euskaraz hitz egiten duzu eta" esaten didate. Euskaraz ikasi nuen ikastolan. COU amaitzean EGA eskuratzeko aukera izan genuen, baina ez zitzaidan beharrezkoa iruditu. Eskuratu izan banu ere, egun ez nuen izango besteek duten erraztasun hori. Euskaraz hitz egiten dakit baina euskaraz eroso aritzea falta zait eta hori lortu arte jarraituko dut euskaltegian.

Kanpoan bizi zinenean ere ez zenuen euskararekiko hartue-mana eten?

Hona etortzen nintzen baikoitzean hemendik euskarazko aldizkariak eta liburuak eramaten nituen. Niretzat euskara hizkuntza berezia da. Oso gustuko dut. Kanpora joaten naizenean ikusten dut, izan ere, askotan nire buruarekin euskaraz hitz

"NIRETZAT GARRANTZITSUA DA EUSKARA BARNERATZEA"

egiten dut, suposatzen dut euskara maite dudalako dela.

Autoikaskuntza edo klase presentzialak, zer duzu nahiago?

Autoikaskuntzan zeure ordutegia moldatzen duzu, niretzat oso egokia zen. Baina klase presentzialak faltan sentitzen nituen, besteekin batera ikasteko. Probatu nuen jabetu nintzen; segurtasun maila ematen du taldeak, ze ikusten duzu ez zarela bakarria zalantzak izan edo urduri dagoena.

Euskara ikastea zaila dela diotenei zer esan?

Euskara oso zaila dela diote, baina nire ama hona etorri zenean euskaltegian matrikulatu zen. Beharrezkoa ikasi zuen, guri etxeko lanekin laguntzeko. Txikitan lagungarria izan zen hori euskara maitatzeko.

Zertan lagundu diezaieke euskaltegiak euskara ikasi nahi dutenei?

Denei animatuko nieke euskaltegian matrikulatzera, alde batetik, haurrak badituzu onuragarria delako beraiei laguntzeko. Bestalde, titulazioa behar dutenez ere bai. Euskaltegiak irteerak eta ekimen gehiago antolatzen ditu. Tokatu zaizkidan irakasleak, gainera, oso jatorrak dira. Taldean oso ondo pasatzen dut. Ni Aginagan bizi naiz. Usurbildik pasatzen nintzen baina ez nintzen bertan egoten. Orain hasi naiz jendea ezagutzen eta oso gustura nago. Euskaltegian ustekabeen nire bizilaguna topatu nuen! Kontuan izan baita; Usurbilgoa izanda doakoa da euskara ikastea, klaseetara joaten bazara. Beraz, herrian bertan, doainik, giro ona... Aukera bada edozein unean zerbait gertatuz gero, ordutegiz aldatzeko, egokitzeko. Ez dago aitzakiarik, beraz, euskara ikasi edo gure euskara maila hobetzeko.



Yuly Jeaneth Gracia Mosquera 2019an hasi zen euskaltegian. "Zertxobait ulertu nahi nuen euskara, hobeto integratzeko".

"2025ean euskaraz hitz egiteko gai izatea, erronka hori dut"

YULY JEANETH GRACIA MOSQUERA ETUMETA AEK EUSKALTEGIKO IKASLEA

Euskara ikasteko prozesu betean da Kolonbian jaiotako herrikidea. Bi urte barru bertako hizkuntza ahotan hartzeko gai izateko erronka jarria dio bere buruari.

Zergatik matrikulatu zinen euskaltegian?

2019an hasi nintzen. Urte hartan heldu nintzen hona. Kolonbiakoa naiz. Pandemia tarteko, ordea, presentzialki bi urtez aritu naiz eta oso gustura. Irakaslea oso pertsona ona da, talde oso ona izan dut. Zertxobait ulertu nahi nuen euskara, herrian hobeto integratzeko. Oso hizkuntza polita da, oso gustukoa dut.

Nolakoa da hizkuntza berri bat zerotik ikastea?

Lehenik, Youtuben bideoak ikusten eta oinarrizko hitzak apuntatzen hasi nintzen; agurra, zenbakiak... Hitz errazenak. Jada asko ulertzen dut, baina

oraindik hitz egitea ez zait ateratzen.

Ulermenean, beraz, nabaritu duzu hobekuntza.

Bai. Aditzengatik ez balitz, oso erraza izango zen. Aditzak zaizkit zailenak, eta hitzekin elkartzea. Oso gustura sentitzen naiz ikasten, oso hizkuntza abegitsua da. Hona iritsi nintzenean, ikertzen hasi nintzen, eta jakin nuen Kolonbian, Bogotan badela euskara ikasteko eskola, han bizi diren euskaldunek beren hizkuntza mantendu nahi dute eta. Hemen bizita konturatu naiz, zuen hizkuntza munduan barrena nahi duzuen lekura daramazuela.

Zer ekarpen egin diezazuke euskarak?

Bertako jendearekin gehiago komunikatzea. Lanean asko lagunduko lidake eta nire hazkunde pertsonalean ere bai. 2025ean euskaraz hitz egiteko gai izatea, euskaraz zer eta nola esan pentsatu gabe, erronka hori jarri diot neure buruari; euskaraz aritzea eta zuek euskaraz erantzun eta nire akatsak zuzen-

"OSO HIZKUNTZA POLITA DA EUSKARA, OSO GUSTUKOA DUT"

tzen laguntzea. Neure inguru euskalduna da, baita lanean ere. Euskaraz hitz egingo banu erosoago izango litzatekeela uste dut. Duela gutxi amaitu dut praktikaldia Eguneko Zentroan. Aiton bati, oinarrizkoena euskaraz adierazten nion, eta ze ondo hitz egiten nuen euskaraz esaten zidan. Hemengo ez nintzela ikusten zuen eta euskaraz hitz egiteak asko pozten zuen. Horrek ni ere pozten nau. Ahizpak ere bere semea ekarri zuen, nik neurek ekarri nituen garaian, haurrak 11 urte ditu. Ikastolan hasi zen ikasten eta jada euskaraz hitz egiten du. Egia esan, zoriotsua eta pozik sentitzen da norbera, datorren herritik etorri eta aurrera egiten ikusita. Pena ematen dit, nire seme-alabak euskara ikasten ez aritzea, baina laster hasiko direla espero dut. Haiak ni baino ikasteko gaitasun handiagoa duten adinean daude. Beraz, halaxe egitea gustatuko litzaidake.

Erraza egin zaizu bertako eta zeure sorterriko hizkuntzak eta kulturak uztartzea?

Baietz uste dut. Hona iristean zailagoa izango zela pentsatzen nuen. Jendea oso abegitsua da.

Zer esan euskaraz mintzatzen ez dakienari?

Euskaltegian matrikulatu dadila. Harritzen naute hemen jaiotako euskaraz ez dakitenek. Ez dut ulertzen hain polita den hizkuntza galtzen uztea. Haurrak entzuten ditut euskaraz hitz egiten, ni hala noiz egongo naizen hitz egiten pentsatzen dut. Ez itxaron, hemengo izan edo kanpotik etorri, ez utzi denbora alferrik galtzen euskaraz hitz egin gabe. Ez da erraza baina norbera saiatuta, egunero hitz berri bat ikasiz, edo elkarrizketa txiki batekin, asko lortzen da. Norberaren ongizaterako da.

Udalak euskara ikastaroen eskaintza handituko du

Erretiratuentzako eta etorri berrientzako oinarrizko euskara klaseak ez ezik, haur eta nerabeentzako errefortzu klaseak antolatuko dituzte, herriko hiru ikastetxeekin elkarlanean.

Erretiratuentzako ikastaroa
Ostegunetan ariko dira, 18:15-19:45 bitartean, Artzabalaren. Oinarrizko hiztegia, esamoldeak, arauak... Eta, oro har, egunerokotasunerako maku-luak ikasiko dituzte.

- Urriaren 19an hasiko dira.

Izena emateko:
Artzabalaren (10:00-12:00)
Telefonoz: 943 37 19 99
Postaz: euskara@usurbil.eus

Etorri berrientzako ikastaroa
Astearteetan ariko dira, 18:15-19:45 bitartean, Potxoenean. Hastapen saioak dira, hizkuntza ezagutarazi, oinarria lantzen hasi eta euskalduntzeko lehen urratsak ematen laguntzeko.

- Urriaren 17an hasiko dira.
- Ikastaroak ateak zabalik izango ditu, herrikide berriei

iritsi ahala bertan parte hartzeko aukera ematea baita helburua.

Izena emateko:
Aurrez aurre: Potxoenean (08:30-14:00)
Telefonoz: 943 37 19 99
Postaz: euskara@usurbil.eus

Haur eta nerabeentzako ikastaroa

Haur eta nerabeei euren euskara maila hobetzen laguntzeko ikastaroa, eskola orduz kanpoko gainerako aukeren osagarri. Udalak Udarregi ikastola eta Zubieta eta Aginagako eskola txikiekin elkarlanean antolatua, eta Ttakun Kultur Elkarteak gidatuta.

Ahoz zein idatziz, adierazteko eta ulertzeko zailtasuna duten haurrentzako saioak izango dira. Jolasa izango da



Erretiratuentzako ikastaroa urriaren 19an abiatuko da. Ostegunetan batuko dira, 18:15etik 19:45era, Artzabalaren.

saioon muina. DBHkoen kasuan, etxerako lanak ulertzen laguntzeko tartea ere hartuko dute astero.

Eskolek eurek izango dute behar hori zein ikaslek duen ebazteko ahalmena. Usurbilen erroldatuta egon baina herriko ikastetxe batean eskolatuta ez dauden haurrek, berriz, Euskara Sailera jo beharko dute erabakia bertan har dezaten. Ikastaro honen kasuan ere, herrira ikasturtea hasita datozeinei ere parte

hartzeko aukera emango die-te.

- Klaseak urriko hirugarren astean hasita dago aurreikusita.

- Hiru gune izango dira: Zubieta, Aginaga eta kaxkoa. Lehen bietan, HH5 eta LH6 bitartekoak elkarrekin ariko dira.

Kaxkoan, berriz, hiru talde izango dira: HH5-LH2, LH3-LH6 eta DBH1-DBH4. Ordu eta erdiko bina saio aurreikusi dituzte talde bakoitzarentzat.

Aholkularitza juridikoaz baliaitzeko aukera izango dute emakumeek

Udalak Irule abokatu taldea kontratatu du, premia hori duten emakumeei aholkularitza juridiko zerbitzua eskaini diezaien. Udalak aditzera eman duenez, "gutxienez, ordubeteko aholkularitza legala jasotzeko aukera izango dute". Hilean bitan eskainiko dute zerbitzu hau, oraingoz Potxoenean.

Askotariko kontsultak

Aholkularitza zerbitzu honetan gai ezberdinak landu ahal izango dira: banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei

buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez betetzeak, atzerri-tartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioa, eskubideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta bestelako kontsultak.

Egutegia

Hilean bi egunetan, asteazketan, 15:00etatik 18:00etara:
• Irailak 20 eta 25.



Udalak hilean bitan eskainiko du zerbitzu hau.

- Urriak 4 eta 18.
- Azaroak 15 eta 29.
- Abenduak 12 eta 18.

Hitzordua hartzeko:

Udaletxean aurrez aurre edota 943 37 19 51 telefono zenbakian.

“Emakumeak mugimenduan”

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko ekimena da honako hau, “emakumezkoen aktibotasunaren garapena sustatu, babestu, lagundu eta bistaratzeko”. Udalak jakinarazi duenez, irailaren 29an 18:30-20:00 artean “emakumeei zuzendutako egokitze orokorreko entrenamendua eskainiko diegu hurbildu nahi duten emakume guztiei. Maila guztietara zuzendutako ariketa fisiko sorta egingo dute Egoa Alvarado entrenatzaile eta bere taldearen eskutik. Edozeinek hartu dezake parte bertan, eta ez da izen-ematerik beharko.

Ikastaroetan izena emateko epea zabalik da

2023-24 denboraldirako ikastaro eskaintzak hazten segitzen du. Lerrootan duzue orain arte bildu ahal izan ditugun saioen zerrenda osoa.

KzGunea

Hilabete amaierara arte 16:00-20:00 artean zabalduko dute.

- Urriak 2-6, 11:00-13:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".
- Urriak 9-24, 11:00-13:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
- Urriak 25-27, 11:00-13:00 "Zure bidaia planifikatu".
- Urriak 30-31, 11:00-13:00 "Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu".

Informazio gehiago:
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Jabetze Eskola

• Autoestimua eta ahalduntzea, Pepa Bojoren eskutik (gaztelaraz). Urriaren 5etik abenduaren 14ra, ostegunero oraingoz Potxoenean, 17:00-19:00 artean.

• Biodantza, urriaren 3tik abenduaren 12ra, asteartero, 15:30-17:00 artean Oiardo kiroldegian.

Izen-ematea, irailaren 20tik 29ra, bideotatik:
Udaletxean edo 943 371 951 telefono zenbakian.

Lanbide Eskola

• Urriaren 13ra arte, ezohiko matrikulazio fasea zabalik izango du Usurbilgo Lanbide Eskolak, baina "soilik plaza hutsak dituzten zikloetan", Zubietako ikastetxetik aditzera eman dutenez. Bulego ordutegian egin ahalko dira kontsultak, ordutegi honetan, 8:00-14:30 artean, edo 943 364 600 telefono zenbakira deituz.



Urriaren 17an hasiko da keramika tailerra.

Alkartasuna

• "Etxeko sagarra baliatzeko eta kalitatezko sagar muztio pasteurizatua egiten ikasteko tailerra" antolatu du Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatibak, irailaren 23an 11:00etan, Alkartasuna Kooperatibak.

Saiorako izena bideotatik eman ahalko da:
alkartasuna.eus
alkartasuna@usurbil.com
943 361 114.

Txalaparta eskola

• Usurbilgo Txalaparta eskolak 2023-24 ikasturterako izen-emateko epea zabaldu dute.

Xehetasun gehiago bideo-tatik jaso daiteke:
695 716 878
usurbiltxalaparta@gmail.com

Kantu Taldea

• Irailaren 30ean itzuliko dira berriz plazara Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak, 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko duten kantu-jirarekin. Aurrez hasiko dituzte ordea entsegu

saioak; astelehenero biltzen segiko dute, 18:00etan hasita Agerialdeko musika gelan.

Furgobaratza

• Usurbilgo Baratze Parkean izango da irailaren 28an, 18:00-19:30 artean. Oraingo honetan, "Haziak jaso eta hazitegia egin" izeneko tailerra eskainiko dute doan herrikide ororentzat.

Buztinzulo

Buztinzulo taldeak keramika tailer berri bat iragarri du. Urriaren 17an hasi eta maiatzaren 28an amaituko da eta asteartero batuko dira, arratsalde partean.

Tailerra

17:30etik 19:30era.
• Prezioa: 200 euro.

JABETZE ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA IRAILAREN 29AN AMAITUKO DA

- Izen-ematea irailaren 30ean amaituko da.
- Harremanetarako:
buztinzulo@gmail.com

Atxegaldeko jaietan eginiko zeramikak, eskuragarri

Buztinzulo Keramika taldeak Atxegaldeko jaietan antolatutako buztin tailerren parte-hartutako pertsonen deia egiten die, "egun horretan sortutako piezak jasotzera pasa daitezten. Irailaren 23an larunbata, goizeko 11:00etatik 12:30era Xumetik herri jaialdian izango dira (Mikel Laboa Plazan), nahi duenak bere pieza jaso dezan."

Santuenea elkarteko ikastaroak

Aero yoga:

- Astelehena: 18:30-20:10.
- Asteazkena: 17:30-20:10.
- Osteguna: 18:30.

Aero dantza:

- Osteguna: 17:15.

Aero fitness:

- Asteazkena: 18:50. Prezioak:
- Saio bat astean: 35 euro hileko.
- Bi saio astean: 55 euro hileko.
- Hiru saio astean: 75 euro hileko.
- Oharra: lehen ordainketa hiruhilekoa izango da (urria-abendua).

Joskintza tailerra:

- Ostiraletan, 17:00.
- Prezioa: 10 euro astean.

Izen-ematea:

670 027 731
615 715 991.



Elen Etxebarria eta Ibai Marcos, Aisiolaren iazko ikastaroko ikaslea eta irakaslea. NOAUA!

Aisialdiko begirale gisa jarduteko ikastaroa, herrian bertan

ELEN ETXEBARRIA ETA IBAI MARCOS AISIOLAREN IKASTAROKO IKASLEA ETA IRAKASLEA

Ikastolen Elkarteko Aisiola Hezitzaile Eskolak aisialdiko hezitzaile ikastaroa antolatu du aurten ere Udarregi ikastolan. Argibideak Potxoenean eskainiko dituzte, irailaren 22an ostirala, 18:30ean.

Ikastaro hau nondik eta nolatan heldu zen iaz Usurbila?

Ibai Marcos: Ikastolen elkar-terko Aisiola hezitzaile eskolak abian ditu halako ikastaroak beste herrietan eta hemen antolatzea ontzat jo zuten.

Deskribatuko zenituzkete ikastaroaren nondik norako nagusiak?

Elen Etxebarria: Iazko ikastaroan parte hartu nuen. Herrian bertan bost orduko saioak izaten genituen larunbatetan. Ikastaroa hiru modulutan banatzen da: haurren aisialdia, feminismoa, lehen sorospenak... landu genituen. Gero praktikaldia burutu behar da. Praktikaldia amaitzean

memoria batekin, bukatzen da.

Zer tresna eskaintzen ditu ikastaro honek?

E.E.: Haurrekin lan egitean izango ditugun egoera erreallak jorratzen dira. Adibidez, haurrak ulertzeko gaitasunak lantzen dira; esaterako gatazkak enpatiatik kudeatzea.

Teoria praktikarekin uztartzen du ikastaroak. Badu gerora lan-mundurako irtenbiderik.

I.M.: Zirimaran lan egiten dudanez, hilean behin ikasleak Zirimarara etorri ziren aurreko ikastaroan. Haien dinamizatu zituzten saioak. Ni behatzen aritu nintzen. Hurrengo

saioan egindakoaz hausnartzen genuen. Hartara, landutako teoria kasu errealean ikusten genuen. Zorte izugarria izan dugu, ikasleak praktikaldira aurrez ordu batzuk haurrekin egonda joan dira. **E.E.:** Haurrekin behintzat lehen hartuemanan izan genuen. Segurtasuna hartzen zoaz udara begira eta praktikaldira lasaitasun gehiagorekin zoaz. Adibidez, haurren

"UDAN LAN EGITEKO AUKERA ASKO EMATEN DIZU"

jarrera desegoki baten aurrean behatu nahi izaten da haurra. Teorikoak pautak ematen dizkizu, baina gero praktikaldian esperimintatzen zoaz pixkanaka.

I.M.: Eskertzekoa da Zirimarako eta Aisiolako taldeek emandako erraztasun guztiak.

Zeinentzat eta zergatik izan liteke interesgarria ikastaro hau?

I.M.: Aukera polita da, udan lan egiteko aukera asko ematen dizu. Gazte orori aholkatuko nioke, ate asko irekitzen baitzizkizu. Ikastaroa, gainera, herrian bertan egin daiteke. **E.E.:** Ikasi eta aisialdiaz ditugun ikuspuntuez hausnartzeko aukera ederra da. Gustura aritu gara, lanketa politikak eta baliagarriak egin ditugu. Gero, jasotakoarekin udan haurrekin lan egitea pribilegio bat da. Jende asko ezagutzen da. **I.M.:** Zeuk zeure burua ezaizteko ere aukera aparta izaten da. Interesa duen gazte oro ostiraleko Potxoenean bilerara joan dadila.

Zuen ogibidea duintzeko bide bat ere bada hau.

I.M.: Gu zenbat eta prestatuagoak egon, emandako zerbitzuen kalitatea hobetzen da eta horrek haurrengan eragin zuzena du. Lan talde indartsuak sortzen lagunduko du, familiak gusturago egongo dira jasotako zerbitzuarekin, haur gehiagoren parte hartzea sustatuko du eta begirale gehiago beharko dira.

Udalak diruz laguntzen ditu ikastarook ezta?

I.M.: Matrikularen erdia ordaintzen du. **E.E.:** Ikastaroa bukatuta, beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta Udalak matrikularen %50a itzultzen du. Gero titulua tramitatutakoan egiaztagiri bezala aurkeztu behar da udaletxean. Ikastaroa egin dugun usurbildar guztioi eman digu Udalak dirulaguntza.



San Praixku egunean, herritarren arteko erronka jokatu da Aginagako frontoian.

Aginaga, jaien azken geltokia

Astebete barru murgilduko da Aginaga, inguruotako azken festetan.

Irailak 29, ostirala

- 18:30 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin.
 - 19:00 Txosna irekiera eta buruhandiak.
 - 19:00 Buruhandiak.
 - 19:00 "Son de hoy" musika talde kubatarren emanaldia Eskola Txikiaren aurrean.
 - 21:00 Pilota jaialdia Ariztitxo pilotalekuan. Sarrera: 15 euro (Arraten, egunean lehiatilan edo entradasfronton.com atarian eskuragarri. Herri afariko sarrerarekin batera erosiz gero, 40 eurotan).
1. partida: gaztetxoak.
Aiert Aburuza-Ander Pagola
Aimar Alejo-Enaitz Errasti
2. partida:
Goiuri Zabaleta-Itxaso Erasun
Miriam Arrillaga-Nora Mendizabal
3. partida:
Alberdi II-Aitor Aranguren
Artola-Iztueta

Irailak 30, larunbata: Oilasko Biltzaileen Eguna

- 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.
- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde elkartetik.
- 11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
- 18:00 Txosna irekiera.
- 18:30 Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilariekin saioa Eskola Txikiaren aurrean.
- Ondoren, herri poteoa.
- 21:00 Herri afari bikaina. Sarrerak Arraten: 30 euro helduak eta 15 euro haurrak.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Erromeria frontoian: Laiotz taldea.
- 03:00 Dj Jotatxo Eliza Zaharrean.

Urriak 1, igandea

- 16:00 XL. Mus Txapelketa Irekia Eliza Zaharrean. Izen-ematea 15:30etatik 16:00ak bitartean.

- 17:00 "Pirata Garrapataren abenturak" antzerkia, txontxongiloak, malabareak eta magia ikuskizuna Patata Tropikala konpainiaren eskutik. Eskola Txikiaren aurrean.
- 19:00 Haragi egosi, txorizo eta sagardo banaketa trikitixaz lagunduta.

Urriak 4, asteazkena: San Praixku Eguna

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamaiketakoa Aginaga Sagardotegian, Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariekin.
- 18:00 Herri kirolak frontoian, herritarren arteko erronka.
- 19:30 Sardina eta sagardo banaketa.
- Bitartean, XXXIX. Toka txapelketa eta buruhandiak.

Urriak 6, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Umeen jolasen hasiera.

- 13:00 Umeen bazkari goxo-goxoa.
- 16:00 Puzgarriak frontoian.
- 17:30 Txokolate goxo-goxoa.
- 18:30 Urzezenaren entzierroa Aginaga Sagardotegitik plaza eta buruhandiak.
- 19:00 Musikaz girotutako poteoa.
- 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Prezioa: 30 euro. Izena emateko idatzi irailaren 29aren aurretik: 616 93 35 56.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Viafara eta Ameba.
- Ondoren, Dj Urdaira.
- Egunak argitzean, etxera.

Urriak 7, larunbata: Errioaren eta Kintoen Eguna

- 11:00 "GOZATU ERRIOAZ": piraguak, alan paseoak eta traineruan arraunean ibiltzeko aukera eta hamaiketakoa.
- 18:00 Txosna irekiera.
- 19:30 Distopia Elektrotxaranga!
- 00:00 Kontzertua eta erromeria frontoian: Herenegun eta Bidebatez.
- 03:30 DJ ZKN Brothers Eliza Zaharrean.
- 08:00 Errefus bilketa.

Antolatzaileak: Jai Batzordea.

SANTUENeko JAIak



Ur jolasean gazteak eta ez hain gazteak aritu ziren.



Txupinazoaren ondoren jarraitu zuen ur festak.



Lucia Balsearak irabazi zuen patata tortilla lehiaketa.



The Hastelen's taldearen bertsiok girotu zuten ostiral gaua.



Ostiraleko txokolate janean ilara luzea osatu zen.



Tximua, deabrua, pailazoa... Buruhandiak bizi-bizi ibili ziren Santuenean.



Gaztetxo ugari bertaratu ziren larunbateko tailerretara.



Patata Tropikala antzerki taldearen ikuskizuna adi-adi jarraitu zuten.



Violeta Abasolorena izan zen balkoirik apainena.



Emilik eta Tonik jantzi zituzten mus lehiaketako txapelak.



Koro Arroyo Iruretagoienak irabazi zuen helduen arteko argazki lehiaketa.



Gaztetxoan, Ane Ugarte Machinandiarenak jaso zuen lehen saria.



Jende askoren lana dago Santueneko jaien arrakastaren atzean.



Zanpantzarren joare hotsak entzun ziren igandean.



Hispanoamerica taldeak dantzan jarri zuen plaza.



Su artifizialekin amaitu ziren jaiak, aspaldiko jendetsuenak.



Emakumezkoen podiuma; ezkerretan, Irati Larrañaga. NOAUA!



Gizonezkoen podiuma; erdian, Hossain Kaanache aurtengo txapelduna. NOAUA!

Beroa nagusi Baxurde Krosean

Uda giro beteko 14. Baxurde Krosak herria inguratu zuen irailaren 17an. Ia ehun bat lasterkariak parte hartu zuten Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldearen helduen ekimenean. 2008-15 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko hiru lasterketa egin zituzten. Belaunaldi gazteena ere bizi asko aritu zen korrika.

Lasterkarien herria izan genuen iragan igandekoa, 14. Baxurde Krosari esker. Ia ehun lagunek osatu zuten herri erdigunea, Santuenea eta Zubietarekin lotu zuen Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak antolatutako proba herrikoiaren hamai-ka kilometroko ibilbidea. Beroa izan zu-ten bidelagun lasterketa osoan zehar.

Helmugara gerturatzean, ordea, sasoi-ko heldu ziren denak, batzuk elkarren-gandik nor lehenago ailegatu ziren las-terka bizian. Besteak, seme-alabak edo bilobak alboan zituztela. Lagun artean heldu ziren baita bat baino gehiago, eskuak goratuta. Hamarnaka partaidek erloju-a-ri begira zapaldu zuten helmuga, ibilbidea zenbat denboran egin zuten egiaztatu nahi zuten eta. Guztiek ere, Dema plaza- ra gerturatu zirenen txalo artean eta ani- mo mezuen artean amaitu zuten joan den igandeko proba: tartean ziren, noski, usurbildarrak ere.

Herrikide bat podiumean

Hossain Kaanache oriotarrak irabazi zuen proba, bere herrikide Iñigo Expositorekin partekatu nahi izan zuen. Jon Arzubialde donostiarra sailkatu zen hirugarren pos- tuan. Irungo Olatz Zabala nagusitu zen emakumezkoen podiumean, Irati Larrañaga kalezartarra sailkatu zen gero, Lourdes Colomo Zizurkilgoarekin batera. Irati eta Beñat Bereziartua izan ziren Baxurde Krosa azkarren amaitu zuten usurbildarrak.

Gaztetxoek bizi asko

Helduekin batera, gaztetxoek ere haien lekua izan dute 14. Baxurde Krosean. Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak, hain zuzen, 14. Baxurde Krosaren baitan hiru lasterketa antolatu zituen 2008-15 urte artean jaiotakoentzat. Onena eman zuten ohi bezala. Bizi asko irten ziren frontoiko helmugatik eta sasoi betean direla erakutsi zuten. Proba lehiakorra ez zen arren, helmugara ere bizi asko iritsi ziren. Bat baino gehiago ikusi genuen, helduen txapelketan bezala, Kaxkoari eman zioten itzuliaren amaieran erloju-a-ri begira, proba zenbat denboran amaitzea lortu zuten egiaztatzen.

14. Baxurde Krossa

Lehen gizonezkoak

- 1-Hossain Kaanache Amghiraf 0:39:38 Orio
- 2-Iñigo Exposito Murillo 0:39:39 Orio
- 3-Jon Arzubialde Elizegi 0:40:34 Donostia

Lehen emakumezkoak

- 16-Olatz Zabala Domínguez 0:43:47 Irun
- 19-Irati Larrañaga Matxain 0:44:20
- 25-Lourdes Colomo 0:46:53 Zizurkil

Lehen usurbildarrak

- 9-Beñat Bereziartua Urretabizkaia 0:42:11
- 19-Irati Larrañaga Matxain 0:44:20

Herrikideen sailkapena

- 9-Beñat Bereziartua Urretabizkaia 0:42:11
- 17-Carlos Zaldua Telleria 0:44:00

- 19-Irati Larrañaga Matxain 0:44:20
- 23-Julen Larrañaga Balerdi 0:45:43
- 24-Igor Maiz 0:46:13
- 29-Unai Udabe 0:47:50
- 31-Alex Udabe Pagola 0:47:54
- 33-Sergio Guerra Montes 0:49:06
- 34-Peio Alkorta Erauntzetamurgil 0:49:25
- 37-Alfonso Palacios Garnateo 0:49:40
- 40-Salvatore Arruti Aramburu 0:50:51
- 41-Gorka Uranga Garcia 0:50:56
- 42-Xabier Dominguez 0:50:57
- 48-Joritz Illaramendi Bereziartua 0:51:42
- 49-Oliver Garcia Linares 0:51:47
- 51-Endika Mendizabal Salaverria 0:51:51
- 52-Jokin Zubiaur Blasco 0:52:00
- 54-Iñaki Errazquin Eceiza 0:52:28
- 58-Aitor Agirre Zapirain 0:52:46
- 62-Ibai Orena 0:53:33
- 63-Borja Chamorro Navarro 0:53:35
- 65-Oinatz Toledo Zabala 0:53:42
- 68-Unax Lasa Etxeberria 0:54:23
- 72-Uxue Fernandez Lasa 0:56:44
- 73-Joseba Undiano Korta 0:56:46
- 75-Maialen Esoain Peña 0:57:34
- 76-Aroa Arruti Castresana 0:57:35
- 79-Eneko Portu Irasuegui 0:58:27
- 81-Jon Alejo Toledo 0:58:32
- 82-Nora Errazquin Eceiza 0:58:38
- 83-Asier Iruretagoyena Lazcano 0:59:01
- 88-Lucia Ucar Gonzalez 1:04:33
- 90-Jon Gumbre Urrea 1:05:18
- 92-Miren Aizpea Unsain Izeta 1:06:48
- 94-Ander Ayuso 1:08:55

Sailkapen osoa eta argazki gehiago noaua. eus atarian dituzue ikusgai.



Herrikideen parte hartze nabarmena izan zuen 14. Baxurde Krosak. NOAUA!



Kaxkoa, Santuenea eta Zubieta lotu zituen lasterketak. NOAUA!



2008-15 urte artean jaiotakoek ere parte hartu ahal izan zuten. NOAUA!



Belaunaldi gazteena ere, bizi asko lasterka. NOAUA!



Beñat Bereziartua lehen herrikide sailkatua, Irati Larrañagarekin batera. NOAUA!




la ehun lagunek parte hartu dute aurtengo edizioan. NOAUA!



Giro beroa izan zuten bidelagun lasterkariek. NOAUA!



Besoak goratuta eta irribartsu, helmugara iritsi berritan. NOAUA!



Malen Aierbe Zubeldia, bere sortze lana alboan duela. NOAAUI

"Zumetaren frontoi atzeko murala digitalizatu nahi nuen"

MALEN AIERBE ZUBELDIA DISEINATZAILEA

Asteburuko Xumetik herri jaialdia bere begiradatik iragarri digu sortu digun iruditeriarekin. Zumetaren murala digitalizatu nahi izan du Usurbilgo diseinatzaileak.

Kartelaren bidez, zer ikusarazi nahi diguzu?

Garrantzituena Zumetaren beraren esentzia hori irudikatzea zen, azkenean bere arte-lanaren urteurren jaialdia da. Horregatik, garrantzitsuena bere muralak ia erabateko presentzia izatea zela iruditu zitzaidan. Kartel bat denez, egitaraua garbia izatea nahi nuen, irakurterraza. Egin dudana izan da muralaren beraren interpretazio bat. Pape-reako baina gehiago diseinu digitalekoa naizenez, Zumetaren frontoi atzeko murala digitalizatu nahi nuen.

50 urte bete dituen Zumetaren horma-irudia izan da hain zuzen,

zeure diseinu lanaren abiapuntua. Betidanik, zuretzat ezaguna. Urtemuga berezi honek nola inspiratu zaitu?

Txikitatik Zumetaren muralaren aurrean bizi izan gara. Horma-irudi horren aurrean nahiz Mikel Laboa plazan jolasten aritu gara. Nolabaiteko muralaren neure interpretazioa egin nahi nuen. Bere esentzia islatu nahi nuen. Bere artelanaren urtemuga denez, garrantzia handiena berari eman nahi nion. Karteleko ilustrazioan ageri diren mural zatietan baldosa moduko batzuk daude. Azkenean, Zumetaren muralak duen berezitasuna horixe bera da; baldosaz baldosa egindako artelan bat

dela. Horregatik, nahi nuen nahiz eta digitala izan, ez izatea irudi planoan, baizik eta baldosaren esentzia hori nolabait beste modu batera islatu nahi nuen.

Dimentsio handi samarra hartu duen herria jaialdia da asteburu honetakoa. Nolabait eragin al du zeure sormen prozesuan?

Honen berri abuztuko bigarren hamabostaldian eman zidaten.

"AURTEN BUKATUKO DITUT IKASKETAK, PRAKTIKEKIN"

Azaldu zidaten egin nahi zela muralaren urteurrenaren harira herri jaialdi bat. Eman zidaten jarraibide bakarra izan zen Zumetaren mural horrekin zerikusia izan behar zuela kartelak. Hortik aurrera, libre utzi zidaten. Zumetaren inguruko jaialdi bat izanda, banekien dimentsio handia hartuko zuela. Kartela diseinatzea eskatu zidatenean, niretzako ohorea izan zen, baina ardura ere sentitu nuen, batetik, Zumeta bezalako artista baten artelan baten inguruko kartela egitea kontu handia delako, eta bestetik, jendeak ere nola ulertu edo jasoko zuen, pixka bat beldur edo kezka hori banuen.

Zeure sortze lana kalean da. Zer nolako balorazioa jaso du?

Udaletxetik lan hau egitea eskatu zidatenak oso gustura daude lanarekin, eta kaletik jendeak ere esan edo idatzi dit whatsapp edo sare sozialetatik jakin dutela nik egin dudala eta asko gustatu zaie. Gehienek esan didatena izan da oso garbia dela kartela, baina Zumetaren esentzia duela. Niretzat ere oso pozgarria da jendeak hala jaso izana.

Diseinu munduko ikasketetan murgildua zabilta ezta?

Hau bigarren ikasturtea da, eta aurrean bukatuko dut praktikaldiarekin. Diseinu grafikoa, goi mailako ikasketak dira, bi urtekoak. Lehenengo urte honetan klaseak izan ditugu. Goi maila honetan klase teorikoek baino proiektu errealek dute garrantzia handiagoa. Irakasleei gustatzen zaie guk diseinatzea. Horretarako behar da teoriaren zati bat, baina baita ere gero zure ideia horiek islatzea. Aurrean, aipatu moduan, bigarren ikasturtea dut. Otsailetik aurrera praktikak egingo ditut eta kito. Gero, prestatzen jarraitzeko asmoa dut. Dagoe-neko zenbait lan egin ditut; Enar estetika zentrorako iruditeria, saltoki honen NOAAUI!

→ aldizkariko iragarkien diseinua...

Dagoeneko hainbat lan enkargatu dizkizute.

Eskolak ematen dizkigu aukera batzuk baina guk geure kabuz topatzen baditugu lekuotan aritzeko aukera ematen digute. Hor ari naiz gustuko enpresa batean egiteko bilaketa lanetan. Aurtengo praktikaldia non egin guk erabakitzeo aukera izan dugu. Ia zer moduz ateratzen den.

Zer ibilbide egitea nahiko zenuke alor honetan? Egun, irudiaren gizartean bizi gara. Berebiziko garrantzia du. Diseinu grafikoko ikasketak egin dituen pertsona batentzat, oso mundu zabala dirudi.

Diseinu grafikoa mundua oso zabala da. Horregatik, arlo desberdinetara dedikatu zaitzke: batetik, maketazioa dago edo web orrialdeen diseinua. Hor ari naiz oraindik nire bidea nondik jorratu ikasten edo ikusten.

Sortzeko, marrazteko edo digi-talki ilustratzeko zaletasuna betidanikoa duzu ala gerora deskubritutakoa?

Betidanik gustuko izan dut klasean aurkezpenak egiten genituen Powerpoint-eko proiektzioak apaintzea. Hala ere, batxilergo zientifikoa egin nuen. Gero, ixa izpien teknikari izateko goi mailako ikasketak egin nituen. Prestakuntza honen bidez, erradiografiak nahiz erresonantziak egiteko trebatzen zara, ospitalean morez janzten diren langileak izateko. Ikasketa horiek amaitzean ez nekien zer egin. Aukera banuen horren ondoren dagoen goi mailako beste ziklo bat egiteko, erradioterapia,

arlo batzuk baliozkotuta. Askok hori egiten dute, baina ez zidan gehiegi erakartzen. Aldiz, sekula ez dut izan diseinu grafikoa ikasteko asmorik baina urte horretan erabaki nuen, bi urteetako ziklo bat zenez egitea. Egia esan, oso gustura nago.

Nola definitu dezakezu zeure estiloa? Zer ezaugarri ditu?

Hitz bat esatekotan, garbia litzateke. Ez dut gustuko gehiegi kargatzea, gustuko dut argitasun hori, Xumetik herri jaialdiko kartelaren kasuan bezala. Egitarauan ikusi daiteke garrantzia ematen diodala egunari eta orduari, biziadizoz batean ikusi ahal izateko zer den garrantzitsua. Garbitasun hori da azpimarragarriena, ez gehiegi kargatzea.

Noiz bukatzen da halako sorkuntza lan baten prozesua? Gordailu lanekin izango da ezta?

Gustuko dut orain arte egin ditudan lan guztien kopia bat edo bi gordetzea. Artxibo digitalak hor daude. Beti duzu aukera inprenta batera joan eta inprimatzeko, baina unean bertan atera den paperezko edizioa bezalakorik ez dago. Armairu osoa bete-betea dago nire lanekin baita inspiraziorako hartutako liburu, aldizkari, txartel eta mila gauzekin. Badu bere xarma benetan atera den produktu hori gordetzeak ere.

Nola sentitu zinen Kale Nagusi ondoko biribilgunean, zure diseinu lana olan erraldoi horretan ikustean?

Niretzat erabateko ohorea izan zen, ia sinestu ezinik nengoen. Azkenean, hor ikusten da benetan zuk entregatu duzun proiektu hau gustatu zaien

edo ez. Ez balitzaie gustatu, kartelean geratuko zen. Niretzako ere hainbeste maitasunekin egindako lan bati kale erdian halako presentzia ematea erabateko ohorea izan da. Niretzako ere eman didaten aukera hau ere, aukera paregabea. Inprentara joan nintzen egitaraua nola geratu zen ikustera eta handik bueltan ikusi nuen bapatean, aurrez aurre, babarrun formako biribilgunearen parera ailegatzean. Gero, lagunekin Orio aldera joan behar genuen egun hartan. Itzuli bikoitza eman genion biribilguneari. Niri hasieran eskatu zidaten lana kartel bat egitea izan zen. Kartel baten dimentsioak direnak dira eta zuk egindako ilustrazio horiek neurri horretan ikusten dira, baina gero bapatean herri sarreran halako olan puska jarritatik ikustea ikaragarria izan zen.

Olana eskatzekoa al zara?

Hor nabil zer egingo duten galdetu nahian. Ez badute gorde nahi, egongelaren erdian jarriko dut, besterik ez bada. Tokia behar da halako olana jartzeko, baina leku falta izan dadila arazo bakarra.

Diseinuaren lanketa, xehetasunen zaintzan oinarritzen da hein handi batean. Hor aurki dezakegu profesional baten eta ez denaren arteko aldea?

Desberdintasuna neurria aldatzen denean ikusten da eta kartel bateko diseinua olan baterako handitzen denean. Zuk diseinu bat egin dezakezu baina ez badituzu detaile guztiak ondo zaintzen, hor ikusten da formakuntza espezifikoa hau jaso duenaren eta halako trebakuntzarik izan ez duenaren arteko aldea. Ni oraindik ikasten ari naiz, hain

zuzen, diseinuaren mundu honetan beti jarraitu behar da trebatzen, izan ere beti daude teknika edo aplikazio berriak.

"Ia denean dago diseinua"

Oso azkar eta etengabe berritzen doa diseinu grafikoa mundu hau, ezta?

Gu ere ikasten ari garen honetan, aplikazio edota webgune berriak ateratzen dira, adimen artifiziala ere hor dago. Geure ikastetxean irakasleak ere saiatzen dira aplikazio berriak erakusten. Azkenean, adi egon behar duzu, bestela atzean geratzen zara segituan.

Adimen artifiziala aipatu duzu. Aukera edo arrisku gisa ikusten al duzu diseinu munduan?

Nik uste gauza batzuetan lagungarria izan daiteke, baina ez dut uste egungoa erabat ordezkatu dezakeenik, osagarria izan daiteke agian. Azkenean, pertsona batek egiten duen diseinu lan bat ez dut uste adimen artifizialak berdinekin egin dezakeenik. Zerorrek ematen diozun ukitu pertsonala ezin dio eman adimen artifizialak. Bestalde, zure alde ere erabili dezakezu.

Adimen artifizialarekin edo gabe, argi denez, itxurak duen garrantzia egun agerikoa da.

Bai eta diseinua ia denean dago; kartelean baita jantxe bateko karta batean. Denda edo jantxe batera joan aurretik begiratzen duzu mugikorrean eta ez da berdina sare sozial edo webgune landua edo landu gabeko bat aurkitzea. Erakusleho polita jartzen badigute, badirudi fidagarriagoa izan daitekeela saltokia.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.



'Zumeta 23' laburmetraiaren filmazioa ekainean egin zen. Irudian, Oskar Alegria zinema zuzendaria ageri da aginduak ematen.

"Zumeta 23 bezalako film artistiko batean parte hartzeak poza ematen du"

'Zumeta 23' film laburraren estreinaldia ostiral honetan izango da, Zubietan. Biharamunean, Usurbigo Mikel Laboa plazan ikus ahal izango da. Oskar Alegria zine zuzendari nafarrak Zumetaren murala izan du inspirazio iturri, eta hainbat herritarrek hartu dute parte filmazioan.

Aintzane Aizpurua: "Filma ikusteko irrikan nago"

Zumarte Abesbatzako kide batzuk hartu dute parte filmaketan, tartean, gure solaskideak. Horrelako lan batean parte hartzea pozgarria egin zaiola aitortu digu.

NOAUA: Oskar Alegriaren 'Zumeta 23' film laburrean, abesbatzako kantari gisa aritu zara, ezta?

Aintzane Aizpurua: Bai, hori da. Peru Galbetek eginiko moldaketa batean parte hartu genuen. Hasiere batean hots batzuk soilik egin behar genituen. Baina Peruren moldaketa horretan zerbait gehiago egin genezakeela ikusita, abestu ere abestu genuen kantaren hainbat zatitan.

Film batean parte hartzen duzun lehen aldia al da?

Bai, hala da. Proposamena arraroa eta berezia irudituzitzaidan, baina polita izan da esperientzia. Halako muntaia ikustea harrigarria egin zitzaidan.

Zumetaren omenezko lan honetan parte hartzeak zer suposatu du zuretzat?

Oso berezia da niretzat. Muralak 50 urte ditu eta nik 43. Umetatik ezagutu dudana zerbait da, beraz. Poza ematen

"HALAKO MUNTAIA IKUSTEA HARRIGARRIA EGIN ZITZAIDAN"

AINTZANE AIZPURUA, KANTARIA

du horrelako lan artistiko batean parte hartzeak. Film laburra ikusteko irrikan nago, egia esan.

Xumetik jaialdian ere arituko da Zumarte Abesbatza. Zerbait arretzerik bai?

Larunbat arratsaldeko ibilaldi girotuan, Zumarte Abesbatzako taldetxo batek hartuko du parte. Herrian zehar egingo den zerbait izango da, eta guri ibilaldiaren zati batean abestea egokitu zaigu.

"GRABAZIOA OSO ONDO PLANIFIKATUTA ZUTEN"

NEKANE ZALDUA, FIGURANTEA

Nekane Zaldua: "Ohore handia da niretzat"

Nekane Zaldua txiripaz dago filmaren kredituetan. Grabazio egunean, Zubietako errebotte plazan zen. Partehartzaile batzuk huts egin zuten, jendea behar zen eta halaxe murgildu zen grabazioan.

NOAUA: Filmean agertzen den abeslarietako bat zara, ezta?

Nekane Zaldua: Bai baina ni ez naiz kantaria. Grabazio egunean, plazara azaldu nintzen eta hantxe ziren denak. Arrate Eizagirre abesbatzako kideak ikusi ninduen eta kantarietako batek kale egin zuela, jendea behar zutela eta ea animatuko nintzen. Etxera joan, arropa aldatu eta horrelaxe bertaratu nintzen (filmaketara).

Figurante lanak egin zenituen, hortaz.

Hori da, figurante bezala agertzen naiz. Abesbatzakoekin batera aritu nintzen. Beraiek abestu eta soinuak egiten zituzten, baina nik ez nuen abestu; bakarrik ahoa mugitzen nuen. Oso komikoa da dena.

Film batean parte hartzen duzun lehen aldia al da?

Hala da eta asko gozatu nuen. Aldez aurretik lan handia egin zuten. Peru Galbetek, Oskar Alegriak eta Koldobika Jauregik kristoren lana egin zuten aldez aurretik, den-dena antolatzen. Oso ondo planifikatuta zuten grabazioa. Esperientzia ederra izan zen, filmaketa baten tripak ezagutzeko aukera izan genuelako.

Lan honetan parte hartzeak zer suposatu du zuretzat?

Niretzat ohore handia izan da. Zumeta margolaria betidanik gustatu izan zait, Usoarekin harreman handia dut... Eta tontamentean, dokumental honetan parte hartzeko aukerazatea kristoren esperientzia izan da niretzat. Oso pozik nago parte hartu dudalako.

“Grabazioan ikusi nuenarengatik, ezohiko film bat izango da”

AITOR AGIRRE FIGURANTEA

NOAUA: Kredituen arabera, zu ere kantari gisa aritu zara filmean. Aitor Agirre: Hasiera batean figurante hutsa izan behar nuen, baina gero hots batzuk sartu nahi zituztela eta ea animatuko ginen. Kantatu ez genuen asko kantatu, egia esan, soinu batzuegiten izan ginen.

Figurante hitzarekin hobeto identifikatzen zara orduan?
Egia esan, bai. Kar, kar, kar.

Film batean parte hartzen duzun lehen aldia izan al da?
Dantza (Telmo Esnal, 2018) pelikulan parte hartzeko au-

keraz izan nuen, baina kanpoan nintzen garai hartan, eta ez nintzen izan. Film batean parte hartzen dudana lehen aldia izan da eta oso berezia izan da.

Lan honetan parte hartzeak zer suposatu du zuretzat?

Zumeta pandemia betean hil zen eta NOAUA'rekin batera orduko hartan egin genion omenaldi xumean parte hartu ahal izan nuen. Hura ere berezia izan zen. Ondoren egin zitzaion herri omenaldian ere dantzatu nuen eta orain, muralaren 50. urteurrenean,



Argazkiaren erdialdean, Aitor Agirre.

laburmetraian parte hartzeko aukera izan dut.

Asteburu honetan eskainiko da lehen aldiz filma. Aurretik ikus- teko aukerarik izan al duzue?

Ez. Soilik gu ateratzen garen zatitxo bat baino ez dut ikusi oraingoz. Baina grabazioan zehar ikusi nuenarengatik, oso berezia izango dela iruditzen zait. Ez-ohikoa, kuriozosa.

Larunbateko jaialdia aparta izango da

NOAUA: Goiz partean, arte plastikoak nabarmenduko dira. Arratsaldeko ibilaldia ordea, nolakoa izango da?

Aitor Agirre: Goiz partean, Mikel Laboa plazan egingo diren bost tailerretan arte plastikoak izango dira erreferentzia nagusiak.

Arratsaldeko 18:00etan hasiko den ibilaldi gidatuan aldiz, musika emanaldiak tartekatuko dira. 'Usurbilgo Museo Irekia' ibilaldia hartu da oinarri gisa. Ezohiko geldialdiak izango ditu eta girotua izango da.

Arratsaldekoa ibilaldi gidatu 'girotu' bat izango da.

Hala da, hiru musika ikuskizun tartekatuko dira.

Gaueko ikuskizunari buruz zer aurreratu dezakezu?



Larunbat gaueko jaialdia Mikel Laboa plazan egingo da. NOAUA

Mikel Laboa plazan egingo da jaialdia eta bat egingo dute antzerkiak, musikak eta dantzak.

'Made in Usurbil' izango da hortaz.

Kanpoko zerbait egongo da, baina %90a 'Made in Usurbil' izango da. Arte diziplina ezberdinak uztartuko

diren arren, garrantzia berezia eman nahi zaie arte plastikoari.

Orbeldiko kide ere bazara. Dantzak zer nolako pisua izango du larunbat gaueko jaialdian?

Gaueko ikuskizunean Orbeldiko taldetxo batek hartuko du parte.

'Zumeta 23' estreinaldia: Irailak 22, ostirala

22:00 'Zumeta 23' film laburraren aurkezpena, Zubietako erreboten plazan. Ondoren, Peru Galbete eta Gu taldearen kontzertua.

'Xumetik' herri jaialdia: Irailak 23, larunbata


11:00-13:30 Arte plastikoaren erakusleihoak eta tailerrak herriko sortzaileekin, Mikel Laboa plazan.

12:00 'Zumeta 23' film laburraren aurkezpena, Mikel Laboa plazan.

18:00 Usurbil Museo Irekia ibilaldi berezia, herritarrek girotua. Udarregiren omeneko eskulturatik abiatuko da.

22:30 Xumetik herri ikuskizuna Mikel Laboa plazan: muralaren gogoetak dantza, antzerki eta musika bidez.

Antolatzailea: Usurbilgo Kulturgunea.



50 urte bete dituen Zumetaren muralarekin hartueman zuzenean jarriko gaitu larunbateko jaialdiak. NOAUA!

Auzolan erraldoia, 'Xumetik' herri jaialdiaren atzean

Hitzorduon prestaketa lanetan aritu diren eragileek asteburuko azken xehetasunen berri eman dute.

Hizki larriz idatzi beharreko herri jaialdia ate joka dugu. Jose Luis Zumetaren frontoi atzeko muralaren 50. urtemuga boro-biltzeko sortze lan honekin elkarrizketan, hartueman zuzenean jarriko gaitu irailaren 22an eta 23an antolatu den zikloak.

Film laburraren proiektzioa

Hasteko, 'Zumeta 23' Oskar Alegriak hainbat herrikiderek batera ekainean Zubietako errebote plazan grabatu zuen film laburra proiektatuko dute. Ostiral gau honetan, irailaren 22an 22:00etan aurkeztuko dute

irudiak hartu zituzten eremuan bertan, errebote plazan. Segidan, Peru Galbete eta Gu taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Film labur hau, bihar-munean ere, Mikel Laboa plazan proiektatuko dute, hilaren 23an, eguerdiko 12:00etan hasita. Bi hitzorduotan zuzendari Oskar Alegriak proiektu honen nondik norakoak azalduko ditu.

Tailerrak, herriko sortzaileen gidaritzapean

Larunbatean hain zuzen, 11:00-13:30 artean, Mikel Laboa plaza arte plastikoaren erakuslehoan

bilakatuko dute. Hainbat tailer iragarri dituzte herriko sortzaileekin. Honako hauek: Buztin tailer askea Buztinzulokoen eskutik; 'K'Olore-Collage' Susana Martinek; 'Zirrimarra-ka' Joseba Larratxeren eskutik; 'Animaltzen' Zorione Mendezekin; 'Zumetaren kalejira' Monika Zumeta eta Nekane Alduntzinekin; eta, azkenik, Usoa Zumetak serigrafia postua jarriko du.

18:00etan 'Usurbil Museo Irekia' ekimen berezia abiatuko da, Irune Etxabe trikitalaria eta Maddi Aburruza pandero-jolearekin. Bidean zehar, Zumarte Abesbatzaren, Kimu Txalaparta taldearen eta Ximona ta Doloxen saioaz gozatu ahaliko dugu.

PLAZA ARTE PLASTIKOEN ERAKUSLEHOAN BILAKATUKO DUTE

Muralari buruzko gogoetak

Ibilaldiaren ostean, gaueko 22:30etan hasita, Zumetaren muralari buruzko gogoetak dantzaren, antzerkiaren eta musikaren bidez aurkeztuko dizkigute. Herrikideok bideraturiko auzolan erraldoiari esker gauzatu da ekimena. Musika zuzendaria: Antton Aranburu. Gitarra: Natali Izagirre eta Harritz Harreguy. Baxua, sintetizadorea: Beñat Urteaga. Saxofoia: Alazne Begiristain. Bateria, pad-ak: Enara Eizagirre. Pianoa: Ixak Arruti. Biola: Maialen Azkue. Biolina: Itxaso Sanchez. Aztarrak: Mattin Iribar, Imanol Furundarena, Maddi Egizabal, Aitor Zabaleta, Itxaso Sanchez, Unai Azpiroz eta Mattin Aierbe. Ahotsa: Peru Galbete, Malen Azpiazu, Jon Imanol Etxabe, Maddi Zuloaga, Luken Arkarazo eta Anuk Harreguy. Txalaparta: Kimu taldea. Dantza: Orbeldi Dantza Taldea. Dantza bertikala: La Glo Zirko. Dantza garaikidea: DAB konpainia. Txoriaren diseinua: Jokin Eizagirre. Gidoia: Ugaitz Agirre. Muralaren ahotsak: Jontxu Martinez eta Ainara Ullate. Teknikariak: Soinu Gara. Haiekin batera, hitzorduaren parte hartuko dute Ibai Arrieta argazkilaria eta Haritz Arriabalaga zein Mikel Oiarbide kameralariek. Jaialdiko kartela eta eskuorria Malen Aierbe Zubeldiak diseinatu ditu.

Antolatzaileak

Usurbilgo Kulturgunea izan da antolatzailea, 650 Usurbil Bizi egitasmoa eta Usurbilgo Udalak laguntzaileak. Koordinazio-lantaldean parte hartu dute: Agurnek, Aitorrek, Anttonek, Booktegi K.E.-k, Jon Mikelek, Jontxuk, Luke-nek, Maialenek, NOAUA! K.E.-k eta Ugaitzek.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Alokairuan hartzeko oztupo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674
Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazio gehiago Elizalde inmobiliarian: 943 35 35 34.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiarean zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsalde. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Astean pare bat arratsaldez adineko emakume bat zaintzeko pertsona baten bila nabil. 653 018 132.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171
Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz

jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua 611282203 whatsapp bidez.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Orduategian malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

ZORION AGURRAK



Zorionak Andres!

Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.

HILDAKOAK



Josefa Sondesa Calvo
Irailaren 14an hil zen, 92 urterekin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 21	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 22	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 23	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 24	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 25	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astearte, 26	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 27	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 28	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 29	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 30	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 01	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 22

USURBIL Aisialdiko hezitzaile ikastaroaren aurkezpena

17 urtetik gorako ikasleentzat.
18:30ean Potxoenean.

ZUBIETA 'Zumeta 23' filmaren estreinaldia

'Zumeta 23' film laburraren aurkezpena eta Peru Galbete eta Gu taldearen kontzertua.
22:00etan Zubietako errebote plazan.

LARUNBATA 23

USURBIL Xumetik jaialdia

11:00-13:30 Arte plastikoen erakusleihoak eta tailerrak.
12:00 'Zumeta 23' film proiektzioa.
18:00 'Usurbil museo irekia' ibilaldi girotua.
22:30 Xumetik ikuskizuna.
Egun osoan Mikel Laboa plazan.

USURBIL Muztio tailerra

Etxean muztioa egiten ikasteko tailerra Alkartasuna kooperatiban.
11:00etan Alkartasunan.

IGANDEA 24

USURBIL "Usurbil Museo irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 Sutegin.



Peru Galbete eta Gu taldea zuzenean arituko dira ostiral honetan Zubietan.

Xumetik herri jaialdia Zubietan eta Usurbilen ospatuko da

Irailak 22, ostirala

22:00 'Zumeta 23' film laburraren aurkezpena, Zubietako errebote plazan:
Ondoren, Peru Galbete eta Gu taldearen kontzertua.

Irailak 23, larunbata

11:00-13:30 Arte plastikoen erakusleio eta tailerrak herriko sortzaileekin, Mikel Laboa plazan.

12:00 Zumeta 23 film laburra, Mikel Laboa plazan.

18:00 Usurbil Museo Irekia ibilaldi berezia, herriko musika talde ezberdinek girotua. Udarregiren omenezko eskulturatik abiatuko da ibilaldia.

22:30 Xumetik ikuskizuna Mikel Laboa plazan: muralaren gogoetak dantza, antzerki eta musika bidez.

Muztio tailerra Alkartasunan

Etxeko sagarra baliatzeko eta kalitatezko sagar muztio pasteurizatua egiten ikasteko tailerra larunbat honetan egingo da, 11:00etatik aurrera, Alkartasuna kooperatiban. Izena emateko: 943 361 114.

Eskubaloi partidak

Irailak 23, larunbata
Oiardo kiroldegian
17:30 Jubenil neskak.
16:00 Kadete neskak.

Pilota partidak

Irailak 23, larunbata
Usurbilgo frontoian
12:00 Kadeteen Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka:
-Pagazpe.
(Aburuza-Pagola)
-Tolosa 2.

Frank Delgado kubatarra Sutegin

Musikari kubatarren kontzertua antolatu dute urriaren 8an 19:00etan Sutegin. Sarrerak 8 eurotan eskura daitezke usurbilkultura.eus plataforman. 40 urtetik gorako ibilbidea osatua du Troba Berriaren oinordekoen artean kokatzen duten artista. Hamaika disko kaleratuak ditu, hogetik gora herrialdeetan kontzertuak eskaini ditu.

USURBIL DÖNER KEBAB

843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Borda Berri Kalea, 5

Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ARRANDEGIA

PELLO

9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA

PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

euskara z bizi

izena eman!

Etorri berrientzako hastapen-saioak

Astearteetan, 18.15 - 19.45, Potxoenean
Izen-ematea zabalik:
euskara@usurbil.eus edo 943 371999
Lehen saioa: urriak 17

Jubilatuentzako oinarrizko euskara ikastaroa

Ostegunetan, 18:15-19:45, Artzabalen.
Izen-ematea zabalik hilaren 29ra arte:
Artzabalen 10:00-12:00 edo 943371999
Lehen saioa: urriak 19

Gazteentzako errefortzu-saioak

HH5 eta LH6 bitartekoak Aginaga eta Zubietan
HH5 eta DBH4 bitartekoak Kaxkoan

Izen-ematea zabalik hilaren 29ra arte.

Herriko ikastetxeetako ikasleek
ikastetxean bertan eman beharko dute izena.
Gainerakoek Udalaren Euskara Sailera (Potxoenea)
jo beharko dute.
Taldeak osatu ahala emango da hasiera-egunaren berri.

Informazioa:

Potxoenea, Euskara sailean
943371999



Kronika^{ren}

aldeko Herriarteko Erremonte Txapelketa

2023 / 09 / 29 - 16:00 - **Galarreta jai-alai**

Bailarako 20 sagardotegi baino gehiagoren sagardoa
Dantzariak

SARRERA 12€

PINTXOA + EDARIA

*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN

ORIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

Kronika



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

ITE-ak

649 43 54 75
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.aroztgi.net jr.ibargoien@aroztgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGINTZA LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAKO GREMIOAK · KOMUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • © 943 36 80 04



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39